



BERTSO AGENDA

2024 / OTSAILA-MAIATZA



SANTA ESKEA - ABRA SARIA - KANPOMARTXO - ESKOLATIK PLAZARA

ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA

www.albe.eus

SARE SOZIALAK

 albe_bertso

 @albertsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa
Algorta (Getxo)
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF

Laguntzaileak:





4 EKITALDIAK

9 KORRIKA

10 URIBE KOSTAKO
BERTSOLARI TXAPELKETA

12 ARGAZKI GALERIA

-  *Jaialdia*
-  *Berezia*
-  *Bertso jira*
-  *Txapelketa*
-  *Bertso otordua*

OTSAILA

4

DOMEKA

SANTA ESKEA

9:00 GETXO

Aspaldiko ohitura da Euskal Herrian Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, kale-baserrietara kantuan irtetea, koplak eta bertsoak abestera.

Getxon aspalditik batu ohi gara -askotan Lauaxeta euskaltegikoekin batera eta udalerriko baserrietara joan, makilak hartuta, koplak zaharrak eta berriak abestera.

Jaitsi kantapaperak esteka honetatik: <https://labur.eus/Santaeskea>



2023ko Santa eskea / albe.eus

- 9:00 AEK-ko Lauaxeta euskaltegian hasi eta Fadura atzeko baserrietan ibiliko gara
- 15:00 Getxoko Benta elkartearen bazkaldu
- 17:00 Getxoko Bentatik abiatu eta Andra Mari inguruan buelta

Bazkarirako izena emateko epea: otsailaren 1a (605704385 / albegetxo@gmail.com)

OTSAILA

23

BARIKUA

XXIII. ABRA SARIA

19:00 ALGORTAKO AZEBARRI

Bertsolariak:

Haizea TELLERIA (Bilbo)
Irantzu IDOATE (Hazparne)
June DIAZ (Algorta)
Eli ZAPALDUA (Gasteiz)
Idoia GRANIZO (Altsasu)
Danel Etxeberria (Tolosa)



ABRAKI oroigarria Aitor Zumalabek diseinatu zuen eskolaren logoan oinarrituta eta sariketako parte hartzaile guztiei ematen zaie. / albe.eus

Abra sariketa 2002an sortu zen Euskal Herriko bertsolari gazteei plazarako saltoa ematen laguntzeko, eta ordutik urtero jokatu ohi da Getxon.

2015ean, ALBEren 35. urteurrena dela eta, sariketa berezia egin zen eta ordura arteko txapel-dunek makila jokatu zuten: <https://www.albe.eus/abra-historia>

Aurtengoa 23. edizioa izango da eta dagoeneko erreferentzia da Euskal Herri osoko gazte sariketen artean.

MARTXOA

7



Sopelako Udala

EGUENA

EMAKUMEEN EGUNEKO BERTSO POTEOA

19:30 LAIAK TABERNA

Emakumeen eguna ospatzeko poteo musikatua antolatu du Sopelako udalak. Bertsolari bik izango dute Sopelako kale-tabernak bertsoz janzteko ardura. Bertsoez gain, musika ere izango da eta batukada arituko da bertsoen bitarteak erritmoz betetzen, Repercusión Feminista taldearen eskutik.

Sopelan aspalditik egon da bertso giroa, baina aspaldion areagotu egin da, eskualdeko bertsozaleon gozamenerako.



Bertsolariak:
Saioa ALKAIZA
Arrate ILLARO

MARTXOA

21



Sopelako Udala

EGUENA

SOPELAKO BERTSO JIRA MUSIKATUA

19:00 SOPELA

Bertso eta soinu, soinu eta bertso. Bikote ona dantzarako. Sopelako bertso jira musikatua badu pisua eta indarra dagoenako.

Poteatzeko ez da bertsozik behar. Baina bertsoak entzutea poteatu bitartean egunero gure esku ez dagoen kapritxoa dugu. Aurrekoetan bezala, Gentzane eta Ander musikarien triki-panderoek lagunduko gaituzten bertso jiran. Erduze geugaz poteatzera eta bertsoak entzutera.



Bertsolariak:
Inazio VIDAL
Etxahun LEKUE

APIRILA

27

ZAPATUA



XXIX. ESAERA ZAHARREN TXAPELKETA

11:00

SOPELAKO UDALETXKO PLAZA

Uribe Kostako AEK-k antolatuta, eta udalerriko talde eta elkarte askok lagunduta, dagoeneko tradizio handia duen ekitaldia da hau.

Taldeka hartzen da parte. ALBEkideen bertsoen bitartez ematen diren lorratzei jarraiki, atsotitzak asmatzean datza txapelketa arrakastatsu hau. Lehen atala goizez egin ohi da, tabernaz taberna eta musikaz lagunduta. Bazkaria Artadi garagardotegian izango da 15:00etan. Bazkaldu ondoren, talde finalistek bigarren atalari ekiten diote, bertsolari gonbidatuen laguntzaz.

Anima zaitetze parte hartzera!



2019ko txapelketa / Hiruka.eus

Bazkalosteko saioa:

Erika LAGOMA

Manex AGIRRE

Parte hartzeko idatzi helbide honetara:
esaera.zaharrak@aek.eus

Informazio gehiago **www.aek.eus** webgunean.

APIRILA

28

DOMEKA



KANPOMARTXO EGUNPASA

13:30

FABUETA AUZOA

Erandioko Berbots talde euskaltzaleak egindako lan handiaren fruitu duzue egun osoko erromeria hau. 1994. urtean berreskuratu zuten euskaldunak eta euskaltzaleak batzea helburu zuen ospakizuna.

Ordutik huts egin barik egiten da, Erandioko auzoetan txandaka, eta bertsoa ez da inoiz falta izaten, ALBEkook BERBOTSeoekin daukagun harreman sendo eta historikoari esker.

Aurtengoa ere ez da makala izango!



Bertsolariak:

Peru VIDAL

Onintza ENBEITA

MAIATZA

12

DOMEKA

GETXOKO ANDRA MARIKO JAIK

12:30 KIROLDEGIKO
APARKALEKUA

Antzinatik izaten dira bertsoak Getxoko Andra Mariko Isidro Deunaren jaietan; behinola meza osteko giroan, eta gaur egun gazte saltsan. Udako jaietako bertso saioren txupinazoa izaten da hau.



2022ko Andra Mariko jaiak / albe.eus

Bertsolariak:

Naroa TORRALBA
Jone URIA
Peru IRASTORZA
Joanes IGEREGI

Gai-jartzailea: Oihan DIAZ

MAIATZA

14

MARTITZENA

ESKOLATIK PLAZARA

10:00 AREETAKO ANDRES ISASI
MUSIKA ESKOLA

Tradizio luzeko saio honen helburua Getxoko ikastetxeetan urtean zehar bertsolaritza ikasten diharduten ikasleei bertso plaza erreala-ren panoramika eskaintzea da.

Ekitaldian eliteko bertsolariak eta harrobikoak elkarren ondoan aritzen dira, bertsolaritzako ikasleak hartzaile zuzen eta protagonista dira.

Nahikari Ayo bertso irakasleak koordinatzen ditu ikasle taldeak.



Sustrai Colina eta Naroa Torralba 2023ko saioan / albe.eus

Bertsolariak:

Peru IRASTORZA
Miren AMURIZA
+ ALBEko bertsolari gazteak

MAIATZA

18

ZAPATUA

BERTSO BAZKARIA

14:00

ALGORTA

Bertso otordu honi 'klasikoa' deitu ohi diogu, tematikotik bereiztearren, baina funtsean bertso bazkari edo afari tradizionala dugu.

laz izugarri gozatu genuen Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabalen bertsoekin.

Aurten Sustrai eta Jone datoz bertsoan, eta goi mailako saioa itxaroten dugu.



Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal 2023an / albe.eus

Bertsolariak:
Sustrai COLINA
Jone URIA



2023ko bertso bazkaria Patxeko Etxean / albe.eus

MARTXOA

17

DOMEKA

23. KORRIKA

aek



KORRIKA

2024ko martxoaren 14an hasita, 11 egunez eta 10 gauetz, eta gelditu gabe, KORRIKAK Euskal Herria zeharkatuko du martxoaren 24ra arte. Algortatik 21ean pasaTUKo da 7:29ean, eta aurrekoetan bezala, ALBEk lekukoa eramango du tarte batean.

Horrez gain, Korrika kulturalaren barruan saio didaktikoak eta bertso saio ugari antolatuko ditu AEKrekin batera. Adi egon gure sare sozialei haien berri izateko!



2022ko Korrika / albe.eus

AEKren eta ALBEren arteko elkarlana ez da atzo goizekoa: garai batean gau eskoletan euskara ikasten zebiltzan euskalzaleak bertso eskolara etortzen ziren, haien euskara hobetzeko eta bertsoan ikasteko asmoz. Euskal Herrian ezaguna den gure Algortako Bertso Maratoia ere 80ko hamarkadan Korrika Algortara heldu zen batean gauzatu omen zen.

Ordutik sendo mantendu da talde bion arteko harremana, eta hainbat ekitaldi eta ekimen antolatu ditugu elkarlanean, bai Korrikaren aitzakian, bai euskararekin lotutako bestelako jarduerak, kantu eskea edo Sopolako Esaera Zaharren Txapelketa kasu. Hainbat urtez eutsi diogu lankidetzari eta geroan ere hala jarraitzea esperatu dugu.

MARTXOA

9

ZAPATUA URDULIZ

URIBE KOSTAKO
BERTSOLARI TXAPELKETA

KANPORAKETAK

18:00 1. kanporaketa

19:30 2. kanporaketa

21:00 3. kanporaketa

Tabernak zehazteko.

Adi egon gure sare sozialei!



TXAPELKETAREN NONDIK NORAKOAK

Bueltan da Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa. Bi urterik behin egiten denez, 2024ko udabarriarekin batera datorkigu berriro gure eskualdeko bertso-hitzordu garrantzitsuenetako bat.

Txapelketa ugari izan ohi dugu, urteak joan urteak etorri, baina ezin ukatu UKBT berezia dela, etxekoa delako, hurrekoa, eta jai giroan burutzen dugulako. Txikia izanagatik, tradizio handikoa da eskualdeko txapelketa. Bizkaiko Txapelketaren hastapenetan bertan du jatorria. Izan ere, 1959an jokatu zen Bizkaiko bigarren txapelketarako sailkapen moduan antolatu ziren eskualdeetako txapelketak, eta 60ko hamarkadan segida izan zuten.

2000. urtean berreskuratu egin ziren eskualdeko txapelketak, aro berriko Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fase moduan. Gure eskualdeko bertsolariek Ipar Uribeko txapelketan hartzen zuten parte, harik eta 2010ean lehen aldiz Uribe Kostako txapelketa antolatu zen arte.

2016an Bizkaiko txapelketaren sailkapen fasea sortu zen eta eskualdeetako txapelketen eraldaketa ekarri zuen, eta gaur egun ezagutzen dugun moduan egitea ahalbidetu zuen.

2020ko etenaldiaren ostean, indar beteetan dator UKBT lau urte geroago. Hainbat bertsolari ariko dira txapela lortzeko lehian. 6 kanporaketa, 3 finalaurre eta finala izango dira. Kanporaketa eta finalaurreak formatu txikian jokatu dira lagun arteko giro epelean, eta finalen 6 bertsolari ariko dira, nor baino nor, txapelaren bila.

Gurean bertso-ekosistema ugaria eta sendoa dugu. Horren erakusgarri da, bertsolariez gain, jende asko arituko dela gai-jartzaille, epaile eta antolatzaile taldeetan lanean, dena bikain aterra dadin. Eta, hobe ez, bertsozale tropela ere batuko da txapelketaren bueltan. Zu ere gonbidatuta zaude, zatoz!

MARTXOA

15

BARIKUA SOPELA

**URIBE KOSTAKO
BERTSOLARI TXAPELKETA**

KANPORAKETAK

18:00 1. kanporaketa

19:30 2. kanporaketa

21:00 3. kanporaketa

Tabernak zehazteko.

Adi egon gure sare sozialei!



MARTXOA

23

ZAPATUA ALGORTA

**URIBE KOSTAKO
BERTSOLARI TXAPELKETA**

FINALAURREKOAK

13:00 1. finalaurrekoa

17:00 2. finalaurrekoa

18:30 Katea taberna

FINALA

21:30 Azebarri kultur txokoa



2022ko parte hartzaileak Azebarri / albe.eus



BERTSO SAIO TEMATIKOA 2023



pra! Pra-pra!
mpa, tzuropa, tzuñ!
pra! Pra-pra!
mpa, tzuropa, tzuñ!
o bai datorkigu
tik ikusi dugu
mpa, tzuropa, tzuñ!
tik joango gara



TRINOREN AGURRA





ALBE GALA 2023





ERANDIOKO BERTSO JIRA 2023



ABIANEKO BERTSO KATEA





**Algortako
Bertsolari
Eskola**

